

**BAZTANGO UDALAK EZARRITAKO BALDINTZA EKONOMIKO ADMINISTRATIBOAK OIHAN APROBETXAMENDUA SALTZEKO, NAFARROAKO GOBERNUAK 2022KO MARTXOAREN 11ko 113/2022. EBAZPENAREN BIDEZ BAIMENDUTAKOA.**

**1.- XEDEA.**

Plegu itxien bidezko enkante publiko honen xedea da ondotik aipatzen den oihan lotea saltzea: Baztango mendi komunalean, EPM 423, 425, 427 eta 428, **ASKAPE, AUTRIN, BULAR, PERTALATX eta ZUBIRIKOA** eremuetan.

Hasierako prezioa: **51.457,53 euro, BEZa kanpo.**

**2.- LEKUA ETA EGUNA.-** Enkantea Baztango Udaletxean egingen da aurretik helarazitako datan eta orduan.

**3.- KONTRATAZIO MAHAIA.-** Kontratazio Mahaiko kideak izanen dira:

Mahaiburua: Juan Cruz Iriarte, Baztango Udaleko mendi zinegotzia.

Mahaikideak: Florentino Goñi zinegotzia eta udal mendizainak, Andres Zelaieta eta Aitor Bazterrika.

Idazkaria: Iulen Urbiola, Udaleko idazkaria.

Kontratazio mahaia enkantea egin aurre-aurretik osatuko da.

**4.- GAUZATZEKO ETA ZEHATZEKO EPEA.-** Esleitzen den oihan lotea ustiatzeko epea honakoa da, emate-akta sinatzen den egunetik hasita: **9 HILABETEKOA 1, 2 eta 4 loteendako, 6 HILABETE 3. lotearendako eta 12 HILABETE 5. lotearendako.**

**5.- OIHAN APROBETXAMENDUA ORDAINTZEA.-** Errematatzaileak honela egiaztatuko du errematearen zenbatekoaren ordainketa:

- Esleipen prezioaren % 50a emate-akta sinatu eta hurrengo 30 egunetan.

- Esleipen prezioaren % 50a emate-akta sinatu eta 12 hilabetetara.

**6.- KONTRATATZEKO GAITASUNA.-** Pertsona natural edo juridikoek, espainiarrak nahiz atzerriarrak izan, kontratatzen ahalko dute Administrazioarekin, kasuan kasuko sailkapena badute, jarduteko gaitasun osoa badaukate, eta Kontratu Publikoari buruzko 2/2018 Foru Legearen 22. artikulua ezarritako kontratatzekeo debekuetan sarturik ez badaude.

Administrazioak kontratuak sinatu ahalko ditu helburu horretarako elkartzen diren aldi baterako enpresari batasunekin eta batera parte hartzen duten lizitatzailerekin. Lehenengo kasuan batasun hori eskritura publiko batean formalizatu beharko da, baina beharkizun hori ez da eskatuko harik eta esleipena bere alde gauzatu arte.

**CONDICIONES ECONOMICO-ADMINISTRATIVAS FORMULADAS POR EL AYUNTAMIENTO DE BAZTAN PARA LA VENTA DEL APROVECHAMIENTO FORESTAL, AUTORIZADO POR EL GOBIERNO DE NAVARRA MEDIANTE RESOLUCIÓN 113/2022, DE 11 DE MARZO DE 2022**

**1º.- OBJETO.**

*Es objeto de la presente subasta pública, a pliego cerrado, la venta del lote forestal que se reseña seguidamente: Sitio en el monte comunal de Baztan, en los MUP 423, 425, 427 y 428 en los parajes de **ASKAPE, AUTRIN, BULAR, PERTALATX Y ZUBIRIKOA.***

*Precio Tipo Base de Licitación: **51.457,53 euros, IVA excluido.***

**2º.- LUGAR Y FECHA.-** *La celebración de esta subasta será en el Ayuntamiento de Baztan en la fecha y hora que se señalen al efecto.*

**3º.- MESA DE CONTRATACIÓN.-** *La Mesa de Contratación estará integrada del siguiente modo:*

*Presidente: Juan Cruz Iriarte, concejal de montes del Ayuntamiento de Baztan.*

*Vocales: El concejal Florentino Goñi y los guardas forestales municipales Andrés Zelaieta y Aitor Bazterrika.*

*Secretario: Iulen Urbiola, secretario del Ayuntamiento.*

*La mesa de contratación se constituirá inmediatamente antes de la celebración de la subasta*

**4ª.- PLAZO DE EJECUCIÓN Y SANCIÓN.-** *El plazo para explotar del aprovechamiento del lote forestal que se adjudica es de **9 MESES para los Lotes 1, 2 y 4; 6 MESES para el lote 3 y 12 MESES para el lote 5,** contados a partir de la fecha del acta de entrega.*

**5ª.- ABONO DEL APROVECHAMIENTO FORESTAL.-** *El rematante verificará el pago del importe del remate en la forma siguiente:*

*- El 50% del precio de adjudicación en el plazo de 30 días desde la firma del acta de entrega del lote.*

*- El 50% del precio de adjudicación a los 12 meses desde la firma del acta de entrega*

**6ª.- CAPACIDAD PARA CONTRATAR.-** *Podrán contratar con la Administración las personas naturales o jurídicas, españolas o extranjeras, que tengan la correspondiente clasificación y no estén incurso en ninguna de las causas de prohibición para contratar establecidas en el artículo 22 de la Ley Foral 2/2018 de Contratos Públicos.*

*La Administración podrá contratar con uniones de empresarios que se constituyan temporalmente al efecto, así como con los licitadores que participen conjuntamente. En el primer caso será precisa la formalización en escritura pública, si bien dicho requisito no será exigible hasta el momento en que se haya efectuado la adjudicación a su favor.*

Bi kasu horietan, elkartzen diren lizitatuzaileak solidarioki egonen dira behartuak administrazioaren aurrean, bakoitzaren partehartzea azalduko dute eta ordezkari edo ahaldu bakar bat izendatu beharko dute, kontratutik datozen beharkizunak bete eta eskubideak baliatzeko ahalmen askietsia izanen duena, kontratua iraungi arte, deusetan galarazi gabe enpresek kobraketa eta ordainketa garrantzitsuetarako bertze ahalmen mankomunatu batzuk ematea.

Nolanahi ere, pertsona fisiko edo juridikoak izan beharko dute. Azken horiek, horrela, estatutuei edo fundazio-arauei jarraituz edo behar bezala frogatuz, eta kontratua behar bezala bete ahal izateko adina pertsona- zein gauza-bitarteko duen antolamendu bat eduki beharko dute.

#### **7.- PROZEDURA ETA ESLEITZEKO MODUA.-**

Enkantea "plegu itxien" prozeduraren bidez egingen da eta, enkantean parte hartzeko, lizitatuzaileek salgai jarri den oihan lotearen tasazioaren balioaren % 2 aurkeztuko dute, **behin-behineko fidantza** gisa. Behin-behineko fidantza hori eskudirutan egiten ahalko da, edo abal baten bidez, txeke adostu baten bidez, edo indarrean dagoen legerian aurreikusitako bertze edozein modutan.

Era berean, **proposamenek bat etorri beharko dute** argitaratzen den iragarkiaren oinean txertatuko den **ereduarekin**.

Eskaintzak guztiak lizitazio prezioaren azpitik baldin badira Tokiko Gobernu Batzordeak Nafarroako Gobernuari kontsulta egingo dio jakiteko esleitzeko aukerarik dagoen ala ez.

Behin-behineko esleipenik bada, SESTA prozeduraren bidez hobetzen ahalko da, 11/2004 Foru Legearen 229.5 artikuluan ezarritakoari jarraikiz.

**8.- TOKI ENTITATEAK EROSTEA.-** Behin enkanteak eginik eta lotea behin-behinekoz esleitzeko aldian, Baztango Udalak beretzat erosten ahalko du salgai jarritako lotea enkantea egin den prezio berean.

**9.- PUBLIZITATEA.-** Aprobetxamendu hau besterentzeko lizitazioa iragartzeko, iragarki bat paratuko da udaleko web orrialdean eta iragarki taulan, gutxienez ere enkantea egin baino 15 egun lehenago.

**10.- ADMINISTRAZIO AGIRIAK-** Esleipen proposamena suertatzen zaion lizitatuzaileak gehienez ere 7 eguneko epea izanen du, esleipena jakinarazten diotenetik, eskatzen zaizkion agiri hauek badituela eta baliozkoak direla frogatzeko:

*En ambos casos los licitadores agrupados quedarán obligados solidariamente ante la Administración, indicarán la participación de cada uno de ellos y deberán nombrar un representante o apoderado único con poderes bastantes para ejercitar los derechos y cumplir las obligaciones que del contrato se deriven hasta la extinción del mismo, sin perjuicio de la existencia de poderes mancomunados que puedan otorgar las empresas para cobros y pagos de cuantía significativa.*

*En todo caso, han de ser personas naturales o jurídicas. Estas últimas cuando su finalidad o actividad tenga relación directa con el objeto del contrato, según resulte de sus respectivos Estatutos o reglas fundacionales o se acrediten debidamente y disponga de una organización con elementos personales y materiales suficientes para la debida ejecución del contrato.*

**7ª.- PROCEDIMIENTO Y FORMA DE ADJUDICACIÓN.-** La subasta se celebrará por el procedimiento de "pliego cerrado" y para tomar parte en la subasta, los licitadores presentarán, en concepto de **fianza provisional**, la cantidad equivalente al 2% del valor de la tasación del lote forestal objeto de la venta. Esta fianza provisional podrá realizarse en metálico, en aval, cheque conformado o en cualquier otra forma prevista en la legislación vigente.

*Igualmente las **proposiciones deberán ajustarse al modelo** que se insertará al pie del anuncio que se publique. En caso de que se presenten sólo ofertas menores al tipo de licitación la Junta de Gobierno de Local consultará al Gobierno de Navarra sobre la posibilidad o no de adjudicarla por el citado tipo.*

*La adjudicación provisional que pueda efectuarse, podrá ser mejorada por el procedimiento de SEXTEO, de conformidad a lo establecido en el art. 229.5 de la Ley Foral 11/2004.*

**8.- ADQUISICIÓN POR LA ENTIDAD LOCAL.-** Realizadas las subastas y durante el periodo de adjudicación provisional, el Ayuntamiento de Baztan podrá adquirir el lote objeto de la venta para sí, en el mismo precio en que se haya producido la misma.

**9.- PUBLICIDAD.** - La licitación para la enajenación del presente aprovechamiento se anunciará mediante anuncio en la página web y tablón de anuncios del ayuntamiento con una anterioridad mínima de 15 días a la fecha de celebración de la subasta.

**10.- DOCUMENTACIÓN ADMINISTRATIVA-** En el plazo máximo de 7 días desde la notificación de la propuesta de adjudicación el licitador a favor del cual haya recaído la propuesta de adjudicación deberá acreditar, en el Ayuntamiento de Baztan, la posesión y validez de los siguientes documentos:

a) Nortasun juridikoaren egiaztagiriak.

- Lizitatzalea pertsona juridikoa bada, eraketa eskritura eta, halakorik bada, aldaketarena, merkataritza erregistroan behar bezala inskribatua, merkataritzako legeria aplikagarriak baldintza hori ezartzen badu. Horrela ez bada, eraketaren eskritura edo agiria aurkeztu beharko du, aldaketarena, estatutuak edo fundazio egintza, jarduera arautzen duten arauak agertuz, betiere behar den erregistro ofizialean inskribaturik.

- Lizitatzalea pertsona fisikoa bada, Nortasun Agiri Nazionala aurkeztu beharko du.

b) Lizitatzalearen izenean eskabidea sinatzen duen pertsonarentzako ahalordea, eta ahalordedunaren NANA. Pertsona juridikoa denean, ahalordeak merkataritza erregistroan inskribaturik egon beharko du, merkataritzako legeria aplikagarriak hala eskatzen badu.

c) Lizitatzalearen adierazpena, edo, hala bada, haren ahalduaren edo ordezkariarena, non adieraziko den, hitzen ardura bere gain hartuz, ez enpresa ezta bere administrariak ere ez daudela kontratazio galarazpenen barrenean, hots, kontratu publikoak arautzen dituen 2/2018 Foru Legeak aipatzen dituenetan.

d) Zerga arloko betebeharrak:

- Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergan altan egotea, oraingo ekitaldian, eta, bere kasuan, Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergaren azken ordainagiria, eta era berean, erantzukizunpeko aitorten bat aurkeztuko da, zerga horren matrikulan baja eman ez duela dioena.

- Nafarroako Gobernuak Ogasun eta Ogasun Departamentuaren ziurtagiria, eta, horrez gain, lizitatzaleak zerga betebeharrak non dituen, hango administrazio publikoko organo eskudunarena, eskatzaileak bere zerga betebeharrak egunean dituela adierazten duena, proposamenak aurkezteko epea bukatu baino sei hilabete lehenago emana, gehienez.

e) Gizarte Segurantzaren ziurtagiria, adierazteko gizarte segurantzaren sistemari inskribatua dagoela, langileak afiliatu dituela eta alta eman diela, kotizazio agiriak aurkeztu dituela eta indarreko xedapenen arabera Gizarte Segurantzarekin dituen betebeharrak eguneratuak dituela (salbu eta lizitatzalea derrigorrez ez badago haren aplikazio-esparruaren baitan sartua), proposamenak aurkezteko epea bukatu baino sei hilabete lehenago emana, gehienez.

f) Lizitatzalearen adierazpena, edo, hala bada, haren ahalduaren edo ordezkariarena, non adieraziko den, hitzen ardura bere gain hartuz, eta indarreko xedapenen arabera laneko segurtasun eta osasun arloko eta laneko arriskuei aurrea hartzeko arloko betebeharrak betetzen dituela dioena.

a) Documentación acreditativa de la personalidad jurídica.

- Si el licitador fuese persona jurídica, deberá presentarse la escritura de constitución y, en su caso, de modificación, debidamente inscrita en el Registro Mercantil, cuando este requisito fuera exigible conforme a la legislación mercantil que le sea aplicable. Si no lo fuere, deberá aportar la escritura o documento de constitución, de modificación, estatutos o acto fundacional, en el que consten las normas por las que se regula su actividad, inscritos, en su caso, en el correspondiente Registro oficial.

- Si el licitador fuera una persona física, deberá presentar el Documento Nacional de Identidad.

b) Poder a favor de la persona que firme la proposición económica en nombre del licitador y Documento Nacional de Identidad de la persona apoderada. Si el licitador fuera persona jurídica, el poder deberá figurar inscrito en el Registro Mercantil, cuando este requisito fuera exigible conforme a la legislación mercantil que le sea aplicable.

c) Declaración del licitador, o en su caso de su apoderado o representante, en la que se afirme, bajo su responsabilidad, que ni la empresa ni sus administradores están incursos en ninguna de las causas de exclusión del procedimiento de licitación a que se refiere la Ley Foral 2/2018 de Contratos Públicos.

d) Obligaciones Tributarias:

- Alta, referida al ejercicio corriente, y, en su caso, último recibo del Impuesto sobre Actividades Económicas completado con una declaración responsable de no haberse dado de baja en la matrícula del citado impuesto.

- Certificado del Departamento de Economía y Hacienda del Gobierno de Navarra y, además, el de los órganos competentes de las Administraciones Públicas respecto de las cuales el licitador tenga obligaciones tributarias, acreditativos de que se halla al corriente de las mismas, expedido con una antelación no superior a seis meses de la fecha de expiración del plazo de presentación de proposiciones.

e) Certificado expedido por la Seguridad Social acreditativo de estar inscritas en el sistema de Seguridad Social, estar afiliados o haber afiliado y dado de alta a los trabajadores, haber presentado los documentos de cotización correspondientes y hallarse al corriente en el pago de las obligaciones de la Seguridad Social que le imponen las disposiciones vigentes (salvo el supuesto de que el licitador no esté comprendido obligatoriamente dentro de su ámbito de aplicación), expedido con una antelación no superior a seis meses de la fecha de expiración del plazo de presentación de proposiciones.

f) Declaración del licitador, o en su caso de su apoderado o representante, en la que se afirme, bajo su responsabilidad, hallarse al corriente en el cumplimiento de las obligaciones en materia de Seguridad, Salud en el trabajo y prevención de riesgos laborales, impuestas por las disposiciones vigentes.

g) Elkarrekin ari diren lizitatzailleek sinatutako proposamenak aurkezten badira, agiri pribatu bat ere aurkeztuko da, zeinean adieraziko baita elkarrekin parte hartzeko borondatea dutela, zer ehunekotan parte hartuko duen bakoitzak, eta ordezkari edo ahaldun bakar bat izendatuko dute, guztien ordezkaria izan dadin. Idazkia parte hartzen duten enpresa guztiek eta aipatu ahaldunak sinatu beharko dute.

h) Atzerriko enpresendako, edozein mailatako epaitegi eta auzitegi espainiarren jurisdikzioaren mendean jarriko direla dioen deklarazioa, kontratutik, zuzenean edo zeharka, sor daitezkeen gorabehera guztietarako, eta hala gertatzen denean, lizitatzaille edo hautagaiari dagokiokoen jurisdikzio foruari uko egingen diola.

Nafarroako Foru Komunitateko Lizitatzailleen Borondatezko Erregistroan inskribaturik dauden merkataritza-sozietate, kooperatiba eta lan-sozietateendako (zeina apirilaren 19ko 171/2004 Foru Dekretuaren bidez sortu baitzen), aipatu erregistroan inskribatua izanaren ziurtagiriaren kopia aurkeztu beharko dute, modu elektronikoa interneten bidez eskuratua, eta indarraldiaren gaineko norberaren ardurapeko deklarazioa; horrela eginez gero, lizitatzailleak ez du bere nortasunaren eta ordezkartzaren gaineko bertze agiririk aurkeztu beharko.

i) Esleipenaren prezioaren % 4 entitate kontratugilearen alde gordailatu izana frogatzen duen egiaztagiria, behin betiko fidantza gisa.

**11.- ESLEIPENA.-** Kontratazio-organoak, Udalaren Tokiko Gobernu Batzordeak, dagozkion txosten teknikoak ikusita, gehenez HILABETEKO epean esleituko du oihan aprobetxamendua, behin-behineko esleipenetik aitzinera.

**12.- KONTRATUA FORMALIZATZEA.-** Kontrata agiri bidez formalizatuko da, esleipena jakinarazi eta bihar-munetik hasita 15 egun naturaleko epean eta, Kontratu Publikoei buruzko 2/2018 Foru Legearen 101. artikuluan aurreikusitakoaren arabera, agiria notario batek edo administrazio batek egindakoa izaten ahalko da.

Esleipena suertatu zaion lizitatzailleak aurrez agiri hauek aurkeztuko beharko ditu kontratua formalizatzeke:

a) Kontrata sinatuko duen pertsonaren aldeko ahalordea (baldin eta ez bada proposamen ekonomikoa sinatu duen berbera) eta ahaldunaren Nortasun Agiri Nazionala. Esleipenduna pertsona juridikoa bada, ahalordeak Merkataritza Erregistroan inskribaturik egon beharko du, betiere aplikatu beharreko merkataritza legediaren arabera baldintza hori eska badaiteke.

b) Udalaren alde behin betiko bermea utzi izana frogatzen duen gordekina; hots, esleipen-prezioaren % 4ri dagokion zenbateko baliokidea, Kontratu Publikoei buruzko 2/2018 Foru Legearen 101 artikuluan aurreikusitakoaren arabera.

Delako bermea kontratua ongi gauzatuko dela

g) *En el supuesto de que se presentaran proposiciones suscritas por licitadores que participen conjuntamente, se incorporará un documento privado en el que se manifieste la voluntad de concurrencia conjunta, se indique el porcentaje de participación que corresponde a cada uno y se designe un representante o apoderado único que las represente. El escrito habrá de estar firmado tanto por las diversas empresas concurrentes como por el citado apoderado.*

h) *Para las empresas extranjeras, la declaración de someterse a la jurisdicción de los Juzgados y Tribunales españoles de cualquier orden para todas las incidencias que de modo directo o indirecto pudieran surgir del contrato, con renuncia, en su caso, al fuero jurisdiccional que pudiera corresponder al licitador o candidato.*

*En el caso de sociedades mercantiles, cooperativas y sociedades laborales que se encuentren inscritas en el Registro Voluntario de Licitadores de la Comunidad Foral de Navarra creado mediante Decreto Foral 174/2004, de 19 de abril, la aportación de la copia del certificado de inscripción en dicho Registro obtenida electrónicamente a través de internet, junto con una declaración responsable de su vigencia, eximirá al licitador de aportar la documentación relativa a su personalidad y representación.*

i) *Documento acreditativo de haber depositado a favor de la entidad contratante el 4% del precio de la adjudicación, en concepto de fianza definitiva.*

**11ª.- ADJUDICACIÓN.-** *El órgano de contratación, la Junta de Gobierno del Ayuntamiento, previos los informes técnicos correspondientes, adjudicará el aprovechamiento forestal en el plazo máximo de UN MES, a contar desde la adjudicación provisional.*

**12ª.- FORMALIZACIÓN DEL CONTRATO.-** *El contrato se formalizará dentro del plazo de 15 días naturales a contar desde el día siguiente a la notificación de la adjudicación definitiva mediante documento que, a tenor de lo previsto en el artículo 101 de la Ley Foral 2/2018 de Contratos Públicos, podrá ser notarial o administrativo.*

*El licitador que haya resultado adjudicatario deberá presentar, como requisito previo e indispensable para la formalización del contrato, los siguientes documentos:*

a) *Poder a favor de la persona (en el supuesto de que sea diferente a la que haya firmado la proposición económica) que vaya a firmar el contrato y Documento Nacional de Identidad de la persona apoderada. Si el adjudicatario fuere persona jurídica, el poder deberá figurar inscrito en el Registro Mercantil, cuando este requisito fuera exigible conforme a la legislación mercantil que le sea aplicable.*

b) *Resguardo acreditativo de haber consignado, a favor del ayuntamiento, la garantía definitiva por importe equivalente al 4 por 100 del precio de adjudicación, de acuerdo con lo previsto en el artículo 70 de la Ley Foral 2/2018 de Contratos Públicos.*

segurtatzeko da eta ez da likidatuko bermearen epea mugaegunera iritsi eta kontratua modu egokian bete arte.

Agiriek jatorrizkoak edo notario nahiz administrazio bidez kautotutako kopiak izan beharko dute.

Adjudikazio hartzaileari egotzi beharreko arrazoiengatik ez bada kontratua formalizatzen, kontratazio organoak kontratua suntsitzea erabaki ahalko du, interesatuari entzun ondoren, eta honek zenbateko bat eman beharko dio administrazioari, kontratuaren aurrekontuaren % 2, hain justu, eta baita sortutako kalte-galerak ere, aurreko zenbateko hori gaituz gero.

**13.- KONTRATUA LAGATZEA ETA AZPIKONTRATAZIOA.-** Kontratua lagatzea eta azpikontratua bakar-bakarrik onartuko dira, Kontratu Publikoari buruzko 2/2018 Foru Legearen 107. eta 108. artikuluetan aurreikusitako kasuetan eta beharkizunak betetzen badira.

**14.- KONTRATUA GAUZATZEA.-** Lanak egiteko, estu-estuki beteko dira hala klausula hauek nola Baldintza Teknikoen Agiria, hots, Nafarroako Gobernuak 2021ko uzta-ailaren 21ko 358. ebazpenaren bidez onetsitakoa.

**15.- ARRISKUA ETA MENTURA.-** Kontratua esleipendunaren arrisku eta menturara gauzatuko da, eta ezin izanen du ezein aitzakiaren bidez erreklamatu, ezta akatsaren edo omisioaren aitzakiarean ere, eskaintzan finkatu duen prezioaren jaitziera.

**16.- KONTRATISTAREN ERANTZUKIZUNA.-** Kontratista izanen da egindako lanen erantzulea, bai eta kontratuaren gauzatzean izandako omisioak, hutsegiteak, metodo desegokiak edo zuzenak ez diren ondorioak direla-eta administrazioari edo hirugarrenei eragindako ondorioena ere.

**17.- KONTRATISTAREN GIZARTE ETA LAN BETEBEHARRAK.-** Kontratista behartua dago lan arloko, gizarte segurantzako eta laneko segurtasun eta osasun arloko xedapen indardunak betetzera. Kontratistak betebeharrak betetzen ez baditu, edota hark izendatzen dituen teknikariek segurtasunari buruzko xedapenak hausten badituzte, ez da inolako erantzukizunik izanen Administrazio kontratugilearendako.

**18.- KONTRATISTAK ORDAINDU BEHARREKO GASTUAK.-** Kontratistak, berteak berte, gastu hauek ordaindu beharko ditu:

- Baimenak, lizentziak eskuratzeko behar direnak, eta Organismoetatik nahiz partikularrengandik agiriak eta bertzelako informazioa jasotzeko gastuak ere bai.
- Xedapen indardunen arabera aplikatzekoak diren

*La garantía señalada responderá de la buena ejecución del contrato y no será cancelada hasta que se haya producido el vencimiento del plazo de garantía y cumplido satisfactoriamente el contrato.*

*La presentación de dichos documentos, que deberán ser originales o copias autenticadas notarial o administrativamente.*

*Cuando por causas imputables al adjudicatario no pudiera formalizarse el contrato, el Órgano de Contratación podrá acordar la resolución del mismo, previa audiencia del interesado, debiendo éste abonar a la Administración una cantidad equivalente al 2 por 100 del presupuesto del contrato así como los daños y perjuicios ocasionados en lo que excedan a la cantidad anterior.*

**13ª.- CESIÓN DEL CONTRATO Y SUBCONTRATO.-** La cesión del contrato y el subcontrato sólo serán admisibles en los casos y con los requisitos previstos en los artículos 107 y 108 de la ley Foral 2/2018 de Contratos Públicos.

**14ª.- EJECUCIÓN DEL CONTRATO.-** Los trabajos se ejecutarán con estricta sujeción a las presentes cláusulas y al Pliego de Condiciones Técnicas aprobado por el Gobierno de Navarra mediante Resolución 358 del 27 de julio del 2.021.

**15ª.- RIESGO Y VENTURA.-** La ejecución del presente contrato se realiza a riesgo y ventura del adjudicatario, quien no podrá reclamar bajo ningún pretexto, ni aún de error u omisión, disminución del precio fijado en su oferta.

**16ª.- RESPONSABILIDAD DEL CONTRATISTA.-** El contratista será responsable de los trabajos que desarrolle, así como de las consecuencias que se deduzcan para la Administración o para terceros de las omisiones, errores, métodos inadecuados o conclusiones incorrectas en la ejecución del contrato.

**17ª.- OBLIGACIONES SOCIALES Y LABORALES DEL CONTRATISTA.-** El contratista está obligado al cumplimiento de las disposiciones vigentes en materia laboral, de seguridad social y seguridad y salud en el trabajo.

*El incumplimiento de estas obligaciones por parte del contratista, o la infracción de las disposiciones sobre seguridad por parte del personal técnico por él designado, no implicarán responsabilidad alguna para la Administración contratante.*

**18ª.- GASTOS POR CUENTA DEL CONTRATISTA.-** Serán gastos a satisfacer por el Contratista, entre otros, los siguientes:

- Los que se requieran para la obtención de autorizaciones, licencias, y recogida de documentos o cualquier otra información de Organismos o particulares.

zerga, eskubide, tasa, konpentsazio eta gainerako karga eta ordainarazpenak, kontratua edo hura gauzatzeko, edo kontratuak edo hura gauzatzeko eraginda.

**19.- BAIMENAK ETA LIZENTZIAK.-** Kontratatistak baimen eta lizentzia guztiak lortu behar ditu, hala ofizialak nola partikularrak, hots, esleitutako oihan aprobetxamendurako behar diren guztiak.

**20.- LANGILEAK ETA BALIABIDEAK.-** Esleitzen den oihan aprobetxamendurako behar diren langile guztiak, hala esleipendunak dituen finkeok nola behin-behinean ari direnek, lana egiteko egokia den goi-mailako titulua edo lanbide-titulua izan beharko dute, eta esleipendunaren kargura egonen dira aprobetxamendua gauzatzeko behar diren langile eta bitarteko guztiak.

**21.- MOZKETA-** Errematatzaileak zuhaitzen oinean paratutako markaren gaineratik moztuko ditu zuhaitzak, marka motzondoan finkatua geldituko baita mozketa legeztatzeko; bertzenaz, zuhaitza iruzurrez moztu dela joko da. Aipatu oihan aprobetxamenduko esleipendunak zuhaitz seinatu guztiak moztu beharko ditu, eta bota ez diren zuhaitzak kalte gisa zenbatuko dira, eta azken azterketan balioetsiko dira, erabakitzen denarekin bat.

**22.- BIDEAK eta PISTAK.-** Lotearen errematatzaileak lotea ustiatzen hastean duten egoera berean utzi beharko ditu lote horretatik datozen oihan produktuak garraiatzeko eta zura ateratzeko erabiltzen dituen bideak, eta, suntsitzen baditu, bere kasa eginen ditu beharrezkoak diren konponketa-lan oro.

Hartara, behin lotea ustiatzeaz bukatu ondoren, eta huraxe azken aldiz aztertu baino lehen, errematatzaileak ustiapen-lanak bukatu izana jakinarazi beharko dio Udalari, Udalaren batzorde batek, errematatzailearekin batera, edo errematatzaileak izendatzen duen pertsonarekin batera, azter dezan nola gelditu diren bideak zura atera eta oihan produktuak garraiatu ondoren, eta, horren ondorioz, errematatzaileak berehala bideak konpon ditzan, harik eta bide horiek geldi daitezten esleitutako aprobetxamenduen oihan ustiapena hasi zen egunean ibiltzeko zeuden egoera berean.

Ulertzen da pistak eta bideak egoera onean jasotzen direla, salbu eta lotea ustiatzen hasi baino lehen idazki baten bidez Alkatetzara erreklamazioa egiten bada, pista eta bideen egoeraren gainean. Nolanahi ere, Udalak behar diren neurriak hartuko ditu, Mendi Zerbitzuak aurrez txostena eginik, aurkezten den erreklamazioaren gainean.

*- Los impuestos, derechos, tasas, compensaciones y demás gravámenes y exacciones que resultan de aplicación según las disposiciones vigentes con ocasión o como consecuencia del contrato o de su ejecución.*

**19ª.- AUTORIZACIONES Y LICENCIAS.-** *Corresponde al Contratista la obtención de todas las autorizaciones y licencias, tanto oficiales como particulares que se requieran para el aprovechamiento forestal adjudicado.*

**20ª.- PERSONAL Y MEDIOS INSTRUMENTALES.-** *Todo el personal que sea necesario para la realización del aprovechamiento forestal que se adjudica, tanto si pertenece fijo al adjudicatario como si su contrata es eventual, tendrá el título facultativo o profesional adecuado a su cometido, corriendo exclusivamente a cargo del adjudicatario tanto el personal como los medios que sean precisos para la ejecución del aprovechamiento.*

**21ª.- CORTA.-** *El rematante cortará los árboles por encima de la marca puesta al pie de los mismos, la que quedará fijada en el tocón para legalizar la corta, pues del contrario se considerará cortado el árbol fraudulentamente. El adjudicatario del expresado aprovechamiento forestal, vendrá obligado a derribar la totalidad de los árboles señalados, computándose en su caso, como daños, los árboles no derribados, que serán valorados en el reconocimiento final conforme se determine.*

**22ª.- CAMINOS y PISTAS.-** *El rematante del lote deberá dejar los caminos que utilice para la saca y transporte de los productos forestales procedentes de dicho lote, en el estado en que se encuentren los mismos al comenzar la explotación del lote, haciendo por su cuenta, si los destruyera, las recomposiciones que fueran necesarias. Para ello, una vez terminada la explotación del lote y siempre antes del reconocimiento final del mismo, el rematante deberá comunicar al Ayuntamiento la terminación de los trabajos de explotación, para que una Comisión de éste en unión del rematante o de la persona que éste designe, pueda inspeccionar el estado en que han quedado los caminos tras la saca y porte de los productos forestales, para en consecuencia proceder enseguida el rematante a la recomposición de los mismos hasta que tales caminos queden en las mismas condiciones de tránsito en que se encontraban el día del comienzo de la explotación forestal del aprovechamientos adjudicado.*

*Se entiende que las pistas y caminos se reciben en buen estado, salvo que antes de iniciarse la explotación se reclame por escrito ante la Alcaldía de este Ayuntamiento sobre el estado de las pistas y caminos. En este caso, por el Ayuntamiento se adoptarán las medidas que correspondan previo informe del Servicio de Montes sobre la reclamación que se presente.*

Errematatzailea, halaber, behartua dago bazterrak garbi

uztera eta oihanekoak ez diren hondakin guztiak eramatera, hala nola erregai-latak, botilak, plastikoak eta gainerako zabor guztiak.

**23.- LUZAPENA.-** Ustiapen epea bukatu baino lehen, errematatzaileak huraxe luzatzeko eskatzen ahalko dio idatziz Udalari, eta luzapenaren iraupena hiru, sei edo bederatzi hilabetekoa izanen da.

Aipatu luzapena, hala bada, Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuak emanen du, eta errematatzaileak, baimenaren aitzinetik, aprobetxamenduaren esleipenaren prezioaren % 5, 10 edo 20 ordaindu beharko du Udalaren diruzaintzan bigarren luzapen bat eskatzen baldin badu, lehenengo luzapenean ez du deus ere ordaindu beharko.

Udalak ez du bigarren luzapen-eskaerarik izapidetuko, aldez aurretik ez bada ordaindu aipatu luzapenari dagokion zenbatekoa (% 5, % 10, % 20).

Nolanahi ere, errematatzaileak luzapena emateko edota epea luzatzeko eskatzen badu, Udalak ahalmena izanen du horren kontrako txostena egiteko, oihan lanak ongi burutzeko beharrezkoa bada.

**24.- KONTRAESANEN KASUAK.-** Klausula ekonomiko-administratiboetan inolako kontraesanik bada, Baldintza Teknikoen Pleguaren eta Klausula Administratibo Partikularren Pleguaren artean, Plegu honetan bilduta dauden klausulak nagusituko dira.

**25.- JURISDIKZIOA ETA ERREKURTSOAK.-** Plegu honetako oihan aprobetxamenduaren kontratazioak izaera administratiboa dauka. Horren ondorioz, lehenik kontratazio-organoak ebatziko ditu lanak egitetik eta Pleguen xedapenak interpretatetik etor daitezkeen gorabehera guztiak; ebazpen horien kontra, kasuan kasuko arautegietan arautuak dauden errekurtsu administratiboak edo jurisdikzionalak jartzen ahalko dira.

**EGINBIDEA:-** Klausula-plegu hau Baztango Udaleko Tokiko Gobernu Batzordeak 2022eko martxoaren 24an egindako bilkuran onartu zuela jasota gera dadin.

*Asimismo el rematante está obligado a dejar la zona limpia y libre de todo residuo no forestal como latas de combustible, botellas, plásticos y demás basuras.*

**23ª.- PRÓRROGA.-** Antes de expirar el plazo de explotación el rematante podrá solicitar por escrito al Ayuntamiento, una prórroga del mismo, cuya duración será de tres, seis o nueve meses.

*Dicha prórroga será concedida, en su caso, por el Departamento de Desarrollo Rural y Medio Ambiente, debiendo el rematante abonar previamente a la autorización, en la Depositaria del Ayuntamiento, el 5, 10, ó 20 por ciento, respectivamente del precio de adjudicación del aprovechamiento, cuando se trate de una segunda prórroga. En el caso de la primera prórroga no se cobrará porcentaje alguno.*

*No se tramitará la segunda solicitud de prórroga por parte del Ayuntamiento si previamente no se ha ingresado el importe que corresponda a dicha prórroga (5%, 10%, 20%)*

*En todo caso, el Ayuntamiento se reserva la facultad de informar negativamente la concesión de la prórroga o ampliación del plazo que se solicite por el rematante cuando así lo considere conveniente para la buena marcha de los trabajos forestales.*

**24ª.- SUPUESTOS DE CONTRADICCIONES.-** De existir contradicciones, en cuanto a las determinaciones económico-administrativas, entre el Pliego de Condiciones Técnicas y el Pliego de Cláusulas Administrativas Particulares, prevalecerán las cláusulas contenidas en el presente Pliego.


**25ª.- JURISDICCIÓN Y RECURSOS.-** La contratación del aprovechamiento forestal objeto del presente Pliego es de naturaleza administrativa. Por consiguiente, cuantas incidencias se deriven de la realización de los trabajos y de la interpretación de las disposiciones de los Pliegos serán resueltas en primer término por el órgano de contratación, contra cuyas resoluciones podrán interponerse los recursos administrativos o jurisdiccionales regulados en las correspondientes normativas.

**DILIGENCIA:-** Para hacer constar que el presente Pliego de Cláusulas ha sido aprobado por la Junta de Gobierno Local del Ayuntamiento de Baztan, en sesión celebrada el día 24 de marzo de 2022.

ALKATEA / EL ALCALDE



IDAZKARIA / EL SECRETARIO



## PROPOSAMEN EREDUA

Izen-deiturak: ..... NAN zenbakia  
..... herria: ..... karrika: .....  
zenbakia: ....., nire izenean edo entitate hau ordezkatzuz (ezabatu egokia ez dena) :  
..... IFK zenbakia .....  
helbide soziala: ..... karrika: ..... zenbakia: .....  
telefonoa ..... posta elektronikoa: .....

**Adierazten dut** .....  
..... (letra eta zenbakitan), euro (BEZa  
**kanpo**) eskaintzen ditudala **ASKAPE, AUTRIN, BULAR, PERTALATX eta ZUBIRIKOA** izeneko alderdietan  
oihan enkantearen lote bakarragatik; izan ere, baldintza-plegua ezagutu eta onartzen dut eta harekin bat  
nator.

(Eguna eta sinadura)

## MODELO DE PROPOSICIÓN

D/D<sup>a</sup> ....., mayor de edad,  
vecino/a de....., calle....., n<sup>o</sup>....., que  
actúa por sí o en representación de (táchese lo que no proceda)  
....., con domicilio  
social en ..... calle ..... n<sup>o</sup>.....,  
Teléfono ..... correo electrónico: .....

**OFRECE** por el lote único de la subasta forestal sito en los parajes denominados **ASKAPE, AUTRIN,  
BULAR, PERTALATX y ZUBIRIKOA**, la cantidad de .....

..... (en letra y número) euros, IVA  
**excluido**, sometiéndose y aceptando expresamente el pliego de condiciones existentes al respecto y que son  
de conocimiento del ofertante.

(Fecha y firma)